

**'LASA-ZABALA AUZIA'.** Lasa eta Zabalaren familiek «pozez» hartu dute euren senideak bahitu eta hiltzeagatik epaituen zigorrak Auzitegi Konstituzionalak berretsi izana, baina Espainiako Gobernuak Galindori indultua eman ahal izateak beldurtzen ditu.

# Madril «Galindoren isiltasuna» ordaintzen saiatuko dela diote Lasa eta Zabalaren senideek

Arnaldo Otegi Batasuneko eleduna «ziur» dago Gobernuak indultua emango diola

AUTOR

## Egileek Galindo eta Elgorriaga behar zutela dio epaiak

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak atzo eman zuen jendaurrean *Lasa-Zabala auziko* epaia. Bi errefuxiatu tolosarrak hil zituztenek Galindo eta Elgorriaga behar zutela dio autoak. Ez dagoela «beste alternatibarik».

**EGILETZA.** Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren «atxiloketa eta hilketari buruzko zirkunstantziak» aintzat hartuta, Galindok eta Elgorriagak hil behar zituztela dio epaiak. «Oso zaila egiten da, ezinezkoa ez bada, arrazoizko beste alternatibarik aurkitzea». Edonola ere, «beste alternatibarik» ez dela aurkeztu dio.

**TESTIGANTZAK.** Felipe Bayo auzipetuaren eta Angel Lopez eta Pedro Jose Migueliz *Txofo* lekukoaren testigantzak kargu froga gisa ontzat jotatu epaiak, eta *Cesid-en* paperekin testigantza horiek berresten dituztela dio, Ipar Euskal Herrian «bahituak berehala desagertzeko praktikak» deskribatzen baitzituzten, ETAren aurkako gerra zikinaren baitan.

**ERRUGABETASUN USTEA.** Auzitegi Nazionalaren eta Gorenaren epaiak berriz aztertu ditu Konstituzionalak —biek zigorra erabaki zuten—, eta bi auzitegiok eginiko inferentzia «arbitrariora edo irrazionala» izan ote zen aztertzeraz mugatu dela dio autoak. Auzipetuaren errugabetasun presuntzioa ez zutela urratu ebazti du Konstituzionalak.



ANGEL DIAZ / EFE  
Arantza Lasa, Joxean Lasaren arreba, 2000ko apirilean, Auzitegi Nazionalaren epaia jakin zuen egunean.

Idoia Etxeberria | DONOSTIA

Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren senideak «pozik» daude Espainiako Auzitegi Konstituzionalak herenegun harturiko erabakia-ekin; izan ere, beldur ziren Enrique Rodriguez Galindo Guardia Zibileko jeneral ohiak eta beste lau auzipetuek jasotako zigorrak txikitu egingo ote zituzten. Orain, Espainiako Gobernuak zigortuei indultua emango dien ala ez dute kezka. Joxearen arreba Arantza Lasaren hitzetan, «Gobernuak Galindoren isiltasuna nolabait ordaindu beharra dauka», hitz egingo balu «estatu terrorismoa agerian» geratuko litzatekeelako. Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramailea, berriz, «ziur» dago Galindoren indultua berandu baino lehen etorriko dela.

Astlehenean, Auzitegi Konstituzionalak atzera bota zituen Galindok, Julen Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore zibil ohiak zein Enrique Dorado, Felipe Bayo eta Angel Vaquero guardia zibil ohiak jarritako babes helegiteak. Prozesuan haien eskubideak urratu ez zirela iritzi, eta Auzitegi Gorenaren epaia berretsi zuen: 71 eta 75 urte bitarteko kartzela zigorrak, 1983an Lasa eta Zabala gazteak

bahitu eta hiltzeagatik. Autoaren edukia atzo jakinarazi zuten; 75 orri ditu, eta Tomas Vives eta Eugenio Gay dira ponenteak. Auzitegiak babes helegiteak onartu izan balitu, zigortuek kalerako bidea zabalik izango zuketean, hilketa delituetan errugabetzat jota.

Arantza Lasaren esanetan, «Galindo kartzelan dago, baina isilik dago. Galindok ez zuen antolatu GAL. Erantzule nagusia estatu terrorismoa da», eta «badaude nahiko argudio on-dorio horretara iristeko». Herenegungo ebazpenak indultuaren bidea «pixka bat behintzat» tratatuko duelakoan dago: «Gobernua presionatuta sentituko da Galindoren isiltasunaz, baina espero dugu zaila edukitzea». GALek Euskal Herrian 28 pertsona hil zituela gogoratu zuen Lasak, eta «jende pila bat» dagoela hilketen atzean. «Kasu gehienak ez dira argitu oraindik».

### «Justiziarik ez»

Epaiketan, akusazioak ez zuen lortu auzipetuak talde armatuko kide gisa epaitzea, eta lesio zein tortura delituetan errugabetzat jo zituzten. Horregatik, ez litzateke «justiziaz» hitz egin behar-ko, «inpotentiaz» baizik, Lasak dioenez. «Oso gogorra da dena ikustea: Joxeani eta Joxiri zer egin zieten, nola hil zituzten, hainbeste urte desagertuta, hainbeste urte epaiketa egiteko, eta epaiketan zerbait lortu, eta gero zigortuek kartzelatan zein egoera pribilegiatu duten ikustea. Eta orain indultuaz hitz egiten! Lotsagarria da». Edurne Zabala Joxiren arrebaren ustez, berriz, auzitegiak ez du gehiegi sartu nahi izan: «Jende hori ka-lean jarri nahi badute, Gobernuak jar dezala». Hark ere ebazpena indultua emateko oztopo izan daitekeela dio, «askorik fidatzen» ez bada ere.

Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramailea, ordea, «ziur» dago Galindori indultua emango diotela, hark duen informazio baliotsua dela eta. «Iñigo Iruinek [familien abokatua] esan bezala, fiskalaren papera ikustea besterik ez dago»; fiskala babes partziala ematearen alde agertu zen. «Eskandalua da, eta erakusten du zer-nolako estatuan bizi garen». Halaber, Aralarreko koordinatzaile nagusi Patxi Zabaletak dioenez, Galindoren eta Estatuaren beraren «erantzukizuna» da «egia osoa kontatzea».

Josu Jon Imaz Eusko Jaur-la-

## ESPAINIAKO GOBERNUA

### Indultua «oraingoz» mahai ganean ez dagoela adierazi du Raxoik

Agentziak / MADRIL.- Mariano Raxoi Espainiako Gobernuako ministro bozeramaileak atzo azaldu zuenez, Aznarren gobernua «behartuta dago epaitegien ebazpenak onartu eta errespetatzera, eta ezer ez esatera; erabakiak gustuko izan zein ez». Galindori eta *Lasa-Zabala auzian* zigortutako beste laurei Gobernuak indulturik emango ote dien galdetzean, ez zuen ezer as-

korik esan nahi izan: «Gai hori oraingoz ez dago mahai ganean».

Galindoren abokatu Jose Maria Fuster Fabrak ere indultua izan zuen ahotan: «Espainiako gizartean gehienek ulertuko lukete Galindori indultua ematea», jeneral ohiaren bizitza «oso sakrifkatua» izan zelako, beti «komandoak desegiten eta terroristak atxilotzen» ibilki. Galindoren familiak 100.000 sinaduratik gora bildu zituela nabarmendu zuen. Indultua ematea «erabaki politikoa» dela dio, eta Espainiako Gobernuaren esku dagoela. Bidenabar, Estraburgoko giza eskubideen auzitegirako joko dutela berretsi zuen Fuster Fabrak, eta «irabazteko itxaropenik» ez dutela galdtu.